



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Marina Monzó sopranoak eta Ismael Jordi tenorrek zarzuela kontzertu bat eskainiko dute, generoko duo eta erromantza handiak interpretatuz

- Rubén Fdez. Aguirre pianista izango dute lagun igande honetan, ekainaren 2an, besteak beste, *El caserío* edo *La tabernera del puerto* obretako konposizioak eta Joaquín Turina edo Joaquín Rodrigoren abestiak interpretatzeko.

Bilbo, 2024ko maiatzaren 28a.– Arriaga Antzokiak ezinbesteko hitzordu bat eskainiko die zarzuela zaleei igande honetan, ekainaren 2an. Nazioarteko panorama lirikoko kantaririk garrantzitsuenetako bik, **Marina Monzó** sopranoak eta **Ismael Jordi** tenorrek, zarzuelako programa oso bat aurkeztuko dute 19:00etatik aurrera, zaleen gozamenerako. Musika-zuzendaritzaz **Rubén Fdez. Aguirre** arduratu da, eta bera arduratuko da ere emanaldi horretan partiturak pianotik gidatzeaz, zarzuelan hain esanguratsuak diren obretako erromantza ahaztezinak interpretatuz, hala nola *El caserío*, *La tabernera del puerto* edo *Doña Francisquita* zarzueletakoak. Jordi eta Monzók Joaquín Turina eta Joaquín Rodrigoren abestiak sublimatuko dituzte beren ahotsekin, Espainian XX. mendeko lehen hamarkadetan hain adierazgarriak izan zirenak, hain zuzen.

Marina Monzó eta Ismael Jordi aurretik ere Bilboko entzuleriaren artean aho zapore ona utzitakoak dira. Marina Monzóren kasuan, izan ere, oraintxe bertan izan da, amaitu berri baitu OLBEren *La Bohème* operan izan duen parte hartze arrakastatsua. Atzo bertan eskaini zuen bere azken emanaldia, Pucciniren operan Mussetarena eginez, eta orain, berriro prestatzen ari da Bilboko ikusleen aurrean jartzeko; oraingoan Arriaga Antzokian izango da, zarzuela pieza handiak abesteko.

Ismael Jordik, bere aldetik, guztien txaloak jaso zituen duela bi urte Arriaga Antzokira egin zuen azken bisitan, Luis Mariano handiaren larruan sartu zenean, Calixto Bieitok zuzendutako ikuskizun musikal eder baten protagonista gisa. Ikuskizun hartan, omenaldia egin zitzaion gure pertsonaia artistiko handienetako bati, XX. mendeko abeslari handienetako bati. Igandean berriro igoko da Arriagako eszenatokira, oraingoan Marina Monzó eta Rubén Fdez. Aguirrekin batera.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 20 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus